




Neurri haundiko zaborra nonahi botatuak 04

Arazoa larria da. Jendeak traste haundiak edozein bazterretan uzten ditu eta horrekin arduratuta ageri dira zenbait udal. Herri bakoitzean bilketa arautua dago.



Javier Mariezkurrenak denboraldirik onena 24

Doneztebeko pilotoa Kamioien Abiaduran hirugarren izan da Espainiako txapelketan eta 17. Europakoan. Hala, MAN markak motor berria eskaini dio.

2007ko azaroaren 15a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



MINGAIN URDINAREN GAITZAREN ONDORIOZ

25 Behi eta aharrerik gabeko feriak



ORDOKI

altzariak

Larunbat goiz eta
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



Bisita gaitzazu

Gure ardura: **INGURUMENA**

Gure helburua: **AURRERAPEN IRAUNKORRA**

Gure Indarra: **ZHAZTASUN PROFESIONALA**

Guztion aurrerapen eta ongizatean lagundu nahi dugu.
MAGNAk balioa ematen dio naturak eman digun
mineral bati eta BAZTANI aberastasuna ekarriko dio.

MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.



M
Magnesita de Artesiaga
RIQUEZA | MEDIOAMBIENTE | FUTURO

DATUAK...

- 16 urte zituela ekin zion Petti beratarrak musikaren bidari. Noise Hola eta Zup taldeetan ibili ondotik, 1997an bakarkako ibilbidea hasi zuen. 1999an bere lehen lana kaleratu ondotik (*Amets*, 1999), berriki laugarrena atera du: *On*.
- Pettiren kanta zahar eta berriak aurkituko ditugu lan berrian, baita hainbat lagunen kolaborazioa ere.
- Aitzineko diskoekin konparatuz, disko honetan garapena nabaritu daitekeela erran digu Pettik.

PETTI *Berako musikaria*

UTZITAKO ARGAZKIA

«Aitzinekoekin konparatuz, disko berrian eboluzioa nabaria da»

Gurutze PIKABEA

«Folk basatia estiloaren aitzindaria» zarela erraten da. Nolakoa da ba zure musika?

Bueno hori da erraten dutena, baina ez du zertan horrela izan behar. Azkeneko diskoak adibidez, aitzinekoak baino gehiago du folketik. Hura rockeroagoa zen, eta honetan bibolinak eta mandolinak sartu dizkiogu.. **Noise Hole eta Zup taldeetan hasieran, bakarka gero. Zergatik?**

Gehienbat jendearekin gelditu eta entsaiatzeko arazo guttiago zeudelako hasi nintzen. Arazo haundiagoa izaten baita lau lagun elkartzea entsaiatzeko eta jotzeko, bakarra ibiltzea baino. Horrez gain, etxean kanta batzuk idatziaz nituen eta ausartzea erabaki nuen. Kantak lasaiagoak ziren eta Zup taldean jotzeko ez ziren aproposak. **Bortz urte pasatu dira bakarkako lanik kaleratu gabe...**

Bortz urte bakarka diskorik atera gabe, baina bertzelako gauzak egin ditut tarte horretan: Anarirekin disko tiki bat, Lauaxetaren omenez egindako diskoan ere abesti bat atera zen, Txema Murugarren eta Rafa Ruedare-

kin *Hauxe!* diskoa egin nuen... Tarte honetan geldirik ez naiz egondu, eta *mono* hori asetzera lortu dut. **Zergatik *On* izena?**

Diskoa ona delako, nire ustez behinik behin, kontent nago. Hori batetik, eta bertetik ingelesarekin hitz jokoa eginez, bortz urteotan diskorik atera gabe egon ondotik martxan jarri naizelako. Hortik dator izena, euskararen eta ingelesaren arteko hitz jokutik. **Zer aurkituko dugu lan honetan?**

Gehienbat folk musika da, folk amerikarra eta bluesa ere bai. Kanta gehienek ez dute zerikusirik bata bertzearekin. Country puntua ere badu, baita gospel ukitua ere Estitxu Pinatxo nire Berako lehengusinak kantatzen duenean batik bat. Batez ere folk amerikarra da, folk, blues, country... Denetarik badu pixka bat.

Inguruko jendearen kolaborazioa izan duzu diskoan...

Bai. Beñardo nire lagunak nire disko guztietan parte hartzen du eta honetan ere bai, kantatzen eta hiru-lau abestitako hitzak idatzi ditu. Estitxuz gain, Joseba Irazokik ere parte hartu du gitarrekin. Gero gehienak kanpoko lagunak dira: Andoni Tolosa, Xabier Montoia, kanta batean Anje Duhalde... Musikarien artean, baxua eta bateria bizkaitarrak dira, Arkaitz Miner bibolina eta mandolinarekin, Jexux Aranburu teklatuarekin...

Zer du *Orek* bertze zure bertze diskoek ez dutenik?

Eboluzioa, musikala eta pertsonala, eta hori hitzetan eta musikan nabaritzen da. Rafa Rueda ekoizle lanetan ibili da eta Azkarateko Katarain estudioetan grabatu dugu eta horrela, neurri teknikoen aldetik eta ekoizpen aldetik ona atera da.

Noiz ikusiko zaitugu hemen inguruan lan berria aurkezten?

Oraindik ez dakit. Bizkaia eta Gipuzkoa aldean hasi naiz. Iruñean azaroaren 18an jo behar dut, baina hemen barna seguraski urtariletik aitzinera.



BERA, SARA KARRIKA



ARANTZA, ANGULEROAK



BERA, ZALAIN INDUSTRIALDEA



BERA, SAN ESTEBAN KARRIKA

ARGAZKIAK: TXOMIN ELGORRIAGA

Arazoa benetan larria da eta traste haundiak ez dira bazterrean botatzekoak. Bortzirien kasuan, gainera, isunak paratzea ere aurreikusten du araudiak.

ESKUALDEKO HONDAKINEN KUDEAKETA

Neurri haundiko trasteak ez dira edozein lekutan utzi beharrekoak

Arantzako Exkerrenkobordako bidegurutzean neurri haundiko trasteak daude, baita aparkalekuko edukiontzien ondoan ere, Beran Kanttonberri-Legia kalean eta Lesakako Bittiria Plazan eta Erosleren ondoan ere bai. Traste horiek bertze leku batean egon behar zuten, dagokien lekuan, eta ez edozein tokitan botatuak. Papera eta kartoia, pilak, beirak, enbaseak, etxeko hondakin bereziak edo neurri haundiko trasteak, urtetik urtera gero eta gehiago birziklatzen da, baita kontsumitu ere. Halere, traste haundiak tarteko, puntu beltzak oraindik nonahi daude. Zergatik egiten den hori ez dakigu; kontua da, traste haundiei bertzelako irtenbidea emateko eskualde edo herri bakoitzak araudian onartua duela zer egin behar den. Bortziriak, Baztan, Malerreka, Areso eta Leitza trasteok biltzeko Emauseko Traperoak etx-etxe kamioiarekin ibiltzen dira; Goizuetan eta Aranon Goizuetako aguazilak egiten du bilketa; Zugarramurdi, Urdazubi, Senpere, Sara eta Azkainen, bertzelako sistema dute. Norberak eraman behar ditu Cherchebruit eta Amotzen artean dagoen gunera batera.

Gurutze PIKABEA

«Hamaika aldiz erran eta errepi-katu digute etxeko tresna zaharrak ezin ditugula nonahi bota. Hori jakin arren, batzuek ohitura txarra hartu dute eta soberan dituzten tresnak botatzen dituzte. Behin eta berriz garbituta ere, segituan trasto zaharrez betetzen da. Honek ezin du horrela segitutu», dio Arantzako azken Udal informazioak. Arantzakoa ez da eskualdeko kasu bakarra. Zerrenda luzea da. Jendeak bide bazterak, oihan inguruak edo garai bateko zuloak aukeratu dituzten sarritan etxean behar ez dituen tresnak botatzeko. Etxetresna, altzari zaharrak eta pneumatikoak dira batez ere halako puntu beltzetan aurkitu daitezkeen tresna haundiak. Baina urteak dira zabor horiekin zer egin zehaztu zela, tokian tokiko araudiak biltzen du hori, eta herritar arruntentzat doako zerbitzua da gainera.

Pilak, beirak, enbaseak eta paperak zein kartoiak gaika bereizi eta edukiontzi berezietan sartu behar diren bezala, traste haundiekin zer egin ere onartua dago.

Eskualdeko zati handi batean, gisa batera edo bertara, Emauseko Traperoak arduratzen dira horretaz. Hori da, hain zuzen, Baztan, Bortzirriak, Malerreka, Leitza eta Aresoren kasua. Lehendabiziko hiruetan, **Baztan, Bortzirriak** eta **Malerrekan**, Emauseko Traperoek Donezteben duten bulegora deitzea aski da, 948 451979 telefonora, eta etxera joanen dira bila. Bortzirietan, gainera, Mankomunitateak isunak paratzea ere aurreikusten zaborrak edonon botatzeagatik. Gisa berean, aipatu, hurrengo urtean bilketaz nor arduratuko den zehaztu gabe dagoela oraindik, baldintza pleguak aldatu egin direlako eta horrenbertez, berriz lehiaketa zabalduko da. Hori, ordea, azaro amaieran edo abendu hasieran izanen da, bitartean Emauseko Traperoek segituko dute.

Leitzaldean, herri bakoitzak bere erara egiten du bilketa. **Leitzan** eta **Areson** Udal bakoitzak berea kudeatzen du, baina bietan 012ra deitu behar da, eta izena eta beharrak zein diren azaldu, hau da, zein traste eramatea nahi den erran. Horrela, udalletean zerrenda osatuz joaten dira, eta behin zerrenda osatutakoan Udalak Emauseko Traperoei deitu eta etxez etxe joaten dira trasteen bila. Leitzaaren kasuan, eskaera haundiagoa delako, hilabetean bi aldiz pasatu ohi dira, hileko bigarren eta laugarren asteazkenetan normalean. Areson, ordea, eskaera tikiagoa da, eta horregatik kamioia hilean behin pasatzea nahiko da.

Goizuetan aguazila da traste haundien bilketaz arduratzen dena, eta hilabeteko egun jakin batean egiten du hori. **Aranon** ere Goizuetako zerbitzuarekin funtzionatzen dute, eta Goizuetako aguazilak egiten du bilketa, herrian paratuak dauden edukiontzietara hurbildu ondotik.


Urdazubi eta **Zugarramurdik** Lapurdirekin duten hurbiltasuna dela-eta, **Senpere, Sara** eta **Azkaineko** sistemarekin bat egiten dute. Hauetan norberak arduratu behar du Cherchebruit eta Amotzen (Lapurdi) artean dagoen gunera eramateaz. Udalarekin sinatutako akordioaren bitartez, herritarrentzat dohainik den zerbitzua da. Horretarako txartel berezia dute bertakoek. Enpresek, ordea, gehiago kontsumitzen dutelako ordaindu behar dute. Aipatutako gunera eramandakoan, bertan egiten da zaborren banaketa.

BIRZIKLATZEA BULTZATZEKO ONTZIA BORTZIRIETAN

Ekimena berria da gure eskualdean, helburua, ordea, azken urteetako berdina: birziklatze maila hobetzea. Herritarrei, egunerokoan birziklatzen laguntzeko, Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitateak abian paratu duen kanpaina berria da, eta horren bitartez, zaborrak gaika biltzeko ontzi bereziak banatuko dira Bortzirietan, dohainik. Erran ohi da herritarren ehuneko handi batek ez duela birziklatzen beren sukaldeetan etxeko zaborraren frakzio desberdinak gaika biltzeko ontzi egokirik ez duelako. Hain zuzen, arazo horri aitzin egiteko dator ontzi berria.

Ohiko zabor ontziek ez bezala, konpartimentu ezberdinak ditu edukiontzi berri honek, eta hiru koloretako hiru zaku: urdina papera eta kartoiarentzat, horia ontzi arinentzat eta berdea beirarentzat. Zakuok garbigailuan ere garbi daitezke, eta horrenbertez, luzaroan berrerabil daitezke.

Ontzia eskuratzeko, mankomunitateak etxeetara eskutitza bidaliko du,



eta bertan azalduko da bakoitzak noiz eta non jaso ahal izanen duen poltsa. Eskutitzarekin batera joanen da poltsa jasotzeko baldea ere. Edozein kasutan, eskutitza jasotzen ez dutenek ere izanen dute poltsa doan jasotzeko aukera, arduradunek nori eman behar dioten aitzinetik jakinen baitute.

Estetika atseginarekin dator poltsa, koloretsua eta didaktikoa aldi berean. Ohiko ontziaren pareten zurruntasunik ez du, eta horrela, zaku bat goraino bete daiteke ondoko erdi hutsik dagoen bitartean. Irudian ageri dena da, Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitatearen ekimenez Bortzirietan banatuko dena.

ZABOR KILOA EGUNEAN

Gero eta kezka haundiagoa sortzen duen kontua da hiri hondakinena. Nahiz eta gero eta gehiago birziklatu, zabor ekoizte tasak ere etengabe igotzen ari dira: duela 20 urte, bakoitzak egunean kilo erdi inguru zabor sortzen zuen; gaur egun pertsona bakoitzak kiloa gainditu du. Arazoaren larritasuna agerian dago. Eskualdean ere herritar bakoitzak egunean gutti goitibeheiti zabor kilo sortzen du. Bortzirietan da altuena kopuru hori —Nafarroako altuena, gainera—, Ibardingo dendak tartean direla, pertsonako 1,65 kilo zabor kontsumitzen da egunean. Baina aldi berean, Ibardin tarteko, birziklapena ere altuagoa da Bortzirietan. Iazko papera eta kartoiak datuei erreparaturaz gero, 2006an Bortzirietan biztanle bakoitzak 64,15 kilo paper eta kartoi birziklatu zituen; Nafarroan herritar bakoitzak 44,5 kilo egin zituen, eta estatu espainiarrean, biztanleko 24,5 kilo birziklatu ziren.

Kontsumoari dagokionean, eskualdean, Baztan eta Leitza datoz ondotik, pertsona bakoitzak 1,05 kilo kon-

tsumitzen du eguneko; segidan Malerreka heldu da. Hemen egunean 1,03 kilo zaborrekoa da bakoitzaren ekoizte tasa; Goizuetan kontsumoaren datuak baikorragoak dira: 0,51 kilo zabor eguneko eta pertsonako —Nafarroa osoko kopururik baxuena da—. Helburua, ordea, ahalik eta gehien birziklatzea da eta kontsumoaren kopurua murriztea.

ETORKIZUNEN ZABORTEGI BERRIA BAZTANEN EGONEN DA

Zabortegien gaia aspalditik ari da zer errana ematen. Izan ere, Europako arautegi berriak dioenez, zaborrak birziklatzeko planta bereziak sortu behar dira, gaur egun irekiak dauden zabortegiak ixteko. Etorkizunean Nafarroan hiru transferentzia planta egingen dira, eta horietako bat Baztanen kokatuko da, Zozaiko Xolborro harrobi zaharrean. Gainerakoak, berriz, Zangotzan eta Tafallan egingen dira. Planta horietan zaborra banatu eta trinkotu egingen da, eta ondotik, Tuterako El Culebrete biometanizazio plantara eramana.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Oninek Lesakako EAJ-PNV eta Juan Fermin Mitxelena gezurtatu eta erabakiarekin gibelera egitea eskatu die

Joan zen astean Lesakako EAJ-PNV taldeak, eta Juan Fermin Mitxelena alkate ohiak Cornelia Lekuona Fundazioaren auziaren harira eta Onin Udal Taldearen zein bertako buru den Deñe Abuin zinegotziaren kontra errandakoak gezurtatu beharrean da Onin Udal Taldea. Legez kanpo jardun zuen Juan Fermin Mitxelena auzi horretan, berari ez zegozkion konpetentziak beretzat hartuz, eta ez Fundazioaren aitzinean, ez

Udalaren aitzinean, inolako tramite eta informaziorik gabe berak bakar-bakarrik hartutako erabakia izan. Horregatik, onartezina deritzogu, orain, gainerakoei leporatzea berak egindako hanka sartzea, ardura berea bakar-bakarrik dela argi gelditu deanean.

Oninek Mitxelenak hartutako erabakiarekin gibelera egin zezan eskatu zionean, eta jarra zuzentzeko aukera izan zuenean, alkate ohiak uko egin zion auzi horri, eta harrokeriz jokatu zuen. Orain, EAJ-PNV taldeak kontratua bertan behera uztea erraza dela dio. Hain erraza balitz, zergatik ez zuen berak gibelera bota? Berriz ere, eskuak garbitu eta gainerakoei utzi digu egoera zuzentzeko ardura.

Onartezina deritzogu, berak bakarrik hartutako erabaki baten on-

dorioz, eta ondotik ere izandako jarrera medio, Patronatua, Tanturumairu Ikastola, Udala eta Lesakako herria oro har kaltetu izana, eta gaizki egindakoa onartu beharrean, gainerako guztiak kontra egiten jarraitzen du.

Azkenik, Biurana eta Onin erreka bideratzeko proiektuaren laguntzaren gainean, dirulaguntza onartu zenetik, bera alkate zela, ez zuela inolako gestiorik egin proiektu hori gauzatu ahal izateko, eta larriago dena, oraingo udal taldeari ez diola inolako informaziorik eman nahi bera alkate zela gai horren gainean egindako gestioez. Oraingo gobernu taldeak proiektua gauzatu nahi du, eta horretarako urratsak eman ditu dagoeneko Espainiako zein Nafarroako Gobernuen aitzinean, eta bitartean, EAJ oztopoak paratu bertzerik ez

da egiten ari, informazioa gordez, eta ondorioz, ejekuzioa gibelerratu, dirulaguntza galtzeko arriskuarekin.

Hemendik aitzinera Juan Fermin Mitxelenak zein EAJ-PNV taldeek jarrera positiboagoa eta eraikitzaileagoa izatea espero dugu.

Intza osoak esku berriz lan dauka.

Deñe Abuin
Onin Udal Taldea

OHARRA

Eskutitz guztiarekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek toki izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ttipi
ttapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilari egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

XINBILI XANBALA HAUR ESKOLA ULTZAMA

Ordezkapenak egiteko lan polita. Interesatuak bidali kurikulumak.
Beharrezkoa:

- Magistaritza haur hezkuntzan
- Haurrentzako goi zikloko teknikaria
- Psico pedagogia edo psikologia

Informazio gehiago:
Xinbili Xanbala Haur Eskola
Lozengo bidea 5, Irazotz 31797
Tel/Fax: 948306567
xinbilixanbalahaureskola@hotmail.com

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



DIARIO DE NOTICIAS, 2007-10-17

«Erremontea nola edo hala aitzinera doan kirola da. Ez dago dudarik erremontearen oinarria pilotaleku luzeetan dagoela, baina modalitate honek ezin du Euskal Jai eta Galarretarekin bakarrik bizi». «Joku diferentea da, aunitzez azkarra, dinami-koagoa, eta fisikoki hagitx ongi egon behar da». «Zaleei gustatzen bazaie eta jokatzeko leku gehiago baldin badaude, erremontea zabaldu egin behar da. Herrietara jokatzera joan behar da, eta jendea biziatzen bada, guretzat hobe».

Iñaki LIZASO
Doneztebeko erremontista
D. Noticias 2007-10-17

«Usategietako Igandeari buruz egindako balorazioa baikorra baino gehiago izan dela erraten ahal da. Ehunka eta ehunka lagun hurbildu dira usategietara eta guztiak egun eder batekin gozatzeko aukera izan dute. Vianan Nafarroa Oinezaren egunarekin batera izateak jende guttiago erakarriko zuela pentsatzen genuen baina ez da horrela izan. Uso gehien harrapatu den eguna izan da gainera eta ehiztariak ere tiroak botatzeko aukera izan dute».

Joxe Angel GOIENETXE
Etxalarko albintea
D. Vasco 2007-10-23

• 11 GALDERA LABUR •

Ikasketa Amaierako Sari Nazionala. 2005/2006 ikasturteko Espainiar estatuko espediente akademiko onena. Ez da sari makala e?

Ez, izena behintzat oso ponposoa du, eta oso pozik nago, oraindik sinetsi ezinik.

Zer jasoko duzu sari horrekin?

Dirutan 3.000 euro jasoko ditut, eta gero curriculum osatzeko titulua.

Sari honek ate berriak irekiko dizkizu...

Ez dakit zein neurritaraino, baina suposatzen dut ongi etorriko dela gauzak egiten saiatzen naizela ikustea.

21 ohorezko matrikula, 6 bikain, 5 hagitx ongi. Ikasle ona zaren seinale!

Bai, bueno, ikasi dut. Erizaintza ikastea asko gustatzen zait eta ikasketekin ongi asmatu dut. Gustokoa aukeratu dut eta erraz ikasi dut.

Betidani argi izan duzu erizaintza ikasiko zenuela?

Inguru horretako zerbaitek ikasi nahi izan dut, txikitant albarria, gero medikua... Azkenean, erizaintza egin nuen.

Zergatik erizain eta ez mediku?

Hasieran mediku izan nahi nuen, baina gero notak bidaltzerako orduan mediku izateko edo erizaina izateko bidali nuen. Azkenean, erizain. Gustora ez banengoan medikurako bidaliko nuela pentsatu nuen, baina hain gustora egonda ez naiz damutu. Jendeak orain medikuntza ikas-

teko esaten dit, baina bertatik ikusita gehiago gustatzen zait erizaintza.

Orain zertan ari zara?

Klinika Unibertsitarioan lanean eta posgrado bat egiten ari naiz.

Noizbait utziko diozu ikasteari?

Ba ez dakit. Beti esaten dut azkenean izango dela, baina beti beste zerbaitekin hasten naiz. Momentuz hau bukatzean ez dut besterik buruan, baina zeozer egingo dut, lanak aukera ematen badit behintzat.

Zer nahiago, azterketa bat prestatu edo kantu txapelketa?

Kantatzea dibertigarriagoa da.

Lehenago urtean parte hartu zenuen, aurten ere bai?

Bai, aurten ere bai.

Ikasi, kantatu... baduzu bertze zale-tasunik?

Batez ere musikarekin lotutakoak: Leitzako koruan kantatzen dut eta txistua eta pianoa jotzen ditut. Ne-guan eskia-tzera joa-tea gusta-tzen zait. Eta lagu-nekin ego-tea oso go-goko dut.

Maddi OLANO
Leitzako erizaina



ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tel: 948 645 475
BERA NAFARROA

Ark b arkitektura bulegoa
Erakuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza
Celia Lana Ranz
Huarte Gotzal 7 - 31860 Leizta
645008478 tel

ANTZUZELAS
S.L.
Tel: 948 631 317
HARRI NATURALA
Aharritza eta Lantza
Garrantziak: Argiak, Erizak, Beldurak, Zuharkak, Erizak, Beldurak, Erizak, Beldurak
Aharritza eta Lantza
ZINTZURRIK
ADUEKIN
ZULAK
Inongo errepidea
BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoia, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

ITURRALDE
pvc & aluminio
667 264 025 • 948 581 967
maxene@terra.es

HAUTESKUNDEAK

Arano, Donamaria eta Oizko Udalak eta Legasako kontzejua osatu dira 2. deialdian

Zubietako Udala eta Nabarte eta Oierregiko kontzejua hutsik oraingoan ere

ttipi-ttapa

Joan den maiatzeko udal hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez zen herri eta kontzejuetan bigarren hitzordua izan zuten urriaren 28an. Dena den, azken hauteskunde hauek ere ez zuten ikusmin handiegirik sortu udala osatu gabe gelditu zen herrietan, eta oro har, parte-hartzea eskasa izan da. Eskualdeko kasuan, herri eta kontzeju gehienetan zerrenda bakarra aurkeztu zen, eta Zubietako Udalean eta Nabarte eta Oierregiko kontzejuen kasuan, berri ere hutsean gelditu da deialdia.

Donamarian, Rikardo Sagaseta Andiarena karguaren legegaldia hasiko du alkatetzan, *Herriarengatik* taldeko zerrendaburua bera baitzen. Berarekin batera, Santiago Jorajuria, Jose Miguel Lasaga, Francisco Javier Migeltorena, Iñaki Telletxea, Iñaki Baleztena eta Angel Maria Larraburu zine-



Maiatzean zerrendarik aurkeztu ez zen herrietan bigarren aukera izan zuten urriaren 28an.

gotziek osatuko dute heldu den lau urteotako Udala. Hauteskunde egunean, 361 herritarreko zentsotik 192 boto jaso zituen taldeak, bederatzi boto zuri izan ziren eta bi balio gabek. Gainontzeko 158 donamariarrek ez zuten botorik eman, eta beraz, parte-hartzea %56,23koa.

Oitzen inguruan ere kontu beretsua aipatu daiteke. Azkenekobilegaldietan alkate izan

den Alberto San Migel Mindegiak bildu zuen boto kopururik altuena, 31. Luis Mari Mindegiak eta Andres Oteizak 27na jaso zituzten; Jabier Ariztegiak 25 eta Jose Maria Latasak 19. Dena den, Oitzen kasuan zerrenda irekia izaten delako, hautetsi guztiak bildu ondotik banatuko dituzte Udaleko karguak. 120 laguneko zentsotik 40ek bakarrik bozkatu zuten Oitzen, %33,33k.

Aranon ere antzera ibili ziren urriaren 28an. Azken bi legegaldietako alkateak, Iñigo Larrea Perurenak, jaso zituen boto gehien, 39. Juan Manuel Leonetek 34 eskuratu zituen eta Itziar Loiarrek 33. Beraien artean banatuko dituzte karguak, baina Iñigo Larreak segituko du alkatetzan. 130 laguneko zentsotik 47 aranoarrek baino ez zuten bozkatu, zentsoaren %36,15ek, hain zuzen.

Zubietaren kasua berezia izanen da, eta gestora batek kudeatuko du. Maiatzean bezala, urriko deialdian ere Udala osatu gabe gelditu da Zubietan. Honela, legegaldi berria kudeatuko duen bizilagunen gestora bat osatuko da Nafarroako Gobernutik.

KONTZEJUEAN

LEGASAN BAKARRIK

Kontzejuei dagokienez, **Legasan** bakarrik aurkeztu zen zerrenda batzordeko lehendakaria eta lau bokalakeratzeko. Hala, Aitor Zelaieta Mikelarena izanen da Legasako kontzejuko lehendakaria. Bortz hautagaien artean bera izan zen bozkatuena, 45 botorekin. Iban Urrizak 43 boto eskuratu zituen; Asier Iri-sarrik 41; David Andresenak 32 eta Laura Andresenak 28. Bertizaranako bertze bi kontzejua, **Nabarte** eta **Oierregikoak**, osatu gabe geldituko dira.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Asegurua**
Autos, etxebizitza, istripu eta biotza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza Itakala**
Enpresa Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**
Baseri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alkatua
- **Gestoria**
Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnoa eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

bortzirudi
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KAMUSETAK - BIKERAK - TRUKERDIAK (Nahi duzun neurri - dimentsioekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK - KOLORATZAN - TRUKI BEHETAN - PLANGAK
ENKILADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPELETZAK - BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPOAK - ERROTULUAK - IMPRESIA

Erteare. 26 Ekaletxeak Behe D - BERA - Tel Faxa: 948 631 521

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

BERA

FLASH

Kirol eta kultur ekitaldietarako dirulaguntzak banatuko dira

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da

Amaia eta Ainhoa

Berako Udalak kirol eta kultur ekitaldietarako dirulaguntzak banatuko ditu. Kirol arloran bideratutako diruaren %80a kirol praktikara bideratuko da, urte osoko ekitaldi eta jardueretara, eta gehienez ere gainerako %20a ikuskizun eta egun bateko jardueretara. Kultur ekitaldi-dientzako dirulaguntzak emateko irizpideen informazio osotua Kultur Etxean jaso daiteke edo Berako Udalaren web orrian. Eskaerak azaroaren 30era arte aurkeztu beharko dira Herriko Etxean. Kirol ekitaldien dirulaguntzak emateko argibide gehiago, berriz, Udak Kirol Zerbitzuaren bulegotan galdetu beharko da. Dirulaguntza jasoko dutenei ebazpen baten bidez jakinaraziko zaie emandako kopurua. Ondoren, egun batzuen buruan elkarteei dirulaguntzaren erdia emanen zaie. Gainerakoa ekitaldiaren ebaluazio orria entregatu eta gastuak justifikatu ondotik emanen zaie.

Zuzenketa

Hilabete honetan egiten ari den IX. Kafe Antzerki Zikloaren berri eman genuen aurreko



ARGAZKIA: GOIKO

Lurraren Eguneko saridunak antolatzaileekin eta udal ordezkariekin.

alean. Irailaren 16an Kondaira ostatuan *Ez haiekin... ezta haiek gabe ere* ikuskizuna izanen zela erran genuen baina ez da horrela; Txirene Taldeak *Ogiyik karrri etzun semia* eskainiko baitu 22:00etan.

Lurraren Eguneko sariak Arantza eta Lesakara

XXI. Lurraren Egunaren barnean hiru lehiaketa izan ziren, opila, gasna eta sagardoa-rena. Lehenean hiru taldek parte hartu zuten: Ortzegunekoak, Bizpahiru eta Gazte Asanbladak. Ortzegunekoei

buelta ematerakoan opila erori eta epaimahaiak bertze bi taldeen artean 100 euroko saria banatzea erabaki zuen.

Bortzirietako XXI. Gasna Lehiaketara 18 gasna aurkeztu ziren eta Arantzako Serorenbor- da baserriko Margarita Madariagak eraman zuen lehen saria. Berako Garmendikobordako Sokorro Almandozek bigarren saria lortu zuen eta Arantzako Simonen- bordako Salbador Madariagak hirugarrena. Gasna enkantean lehendabizikoaren truke 58 euro ordaindu ziren, 49 euro bigarrenarengatik eta hirugarrenarengatik 24.

Bortzirietako X. Sagardo Lehiaketari dagokionez, 13 sagardogilek parte hartu zuten eta saria Lesakako Buenosairesenea baserriko Jose Mari Elgorriagar- entzat izan zen.

Bertso-saioa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Kultur Batzordeak lagunduta, Berako Euskara Batzordeak bertso saio bikaina antolatu du. Abenduaren 2an 19:00-etatik aurrera Kultur Etxean Sebastian Liza- so, Fredi Paia, Miren Ar- tetxe eta Joxe Juan Zu- bieta *Etxabe* izanen di- ra, eta gai jartzaile, be- rriz, Julen Zelaieta.

Lizuniaga Igoeran Rafa Maritxalar garaile

Rafa Maritxalar korrikari lesakarrak irabazi zuen Lizuniagako Igoeraren XXVII. edizioa. Maritxalarrek 17:02 behar izan zituen 4.900 metroko ibilbidea egiteko, joan den urtean baino zortzi segundu gehiago. Hala ere, iaz bezala, bera izan zen garaile. Beraz, berriz ere, ez zen 1982an Peio Garinek egindako marka (16:13) hobetzerik izan. Gure Txokoa elkarteak, 300 euroko saria jarria du azken urteotan marka hobetzen duenarentzat, baina oraindik ez du inork lortu. Zortzi segundura sartu zen Iru- ñeko Alfredo Lusarreta eta 11 segundura Irun- go Jon Garraus. Emakumeen artean, Cristina Arbues igantziarra izan zen garaile (20:50), Maika Ariztegi ituren- darra bigarrena eta hirugarrena Irungo Marisol Martinez. Beteranoetan, Juan Carlos Korta irundarra nagusitu zen (18:24). Gazteen mailan, mutiletan Ormaiztegi Angel Pelaez izan zen irabazlea, eta nesketan, Eibarko Ane Ziaran. Sari banaketan antolatzaileek omenaldia eskaini zioten Peio Garineri. Izan ere, aurten 25 urte bete dira Lizuniagako Igoeran marka egin zuenetik eta hori gogoratzu, oroigarria eta duela 25 urteko probaren argazkia jaso zituen zizurkildarrak.

ZJ
14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA
Zalain
jatezua - hostala

JAIONE - GOZOTEGIA
Alzale 19 - BERA - 94800798

carroba
gastegiak okidagai
of. de entrega 25 bap
30700 berba (navarra) 1-948 63 08 99
www.sarobe.net

LESAKA

Fundazioko lurren afera intoxikazio kanpaina dela uste du PNVk

Horrekin, «Udalaren kudeaketa txarra» estali nahi omen du Oninek

Aitor AROTZENA

Lesakako EAJ-PNVk prentsaurrekoa eskaini zuen urriaren 30ean, Lekuona Fundazioko lurren inguruan egindakoa azaltzeko. Juan Fermin Mitxelena alkate ohiarekin batera, Jose Angel Agirrebengoa Nafarroako EAJ-PNVko presidentea eta PNVko Lesakako udal taldeak egin zuten agerpena.

Nafarroako EAJ-PNVko presidentea aipatu zuenez, «azken asteetan komunikabideetan alkatearen eta Lesakako lehen indar politikoaren kontrako intoxikazio kanpaina egiten ari da Onin Udal Taldea».

Lur horien balorazioa 2005ean eskatu omen zuen orduan alkate zenak, Tantirumairu ikastolaren eskariz. Operazio guzietan Udalean sarri izan zutela eta modu erabat transparentean jokatu dela adierazi zuen Agirrebengoa.

Ildo beretik joan zen Juan Fermin Mitxelena solasaldia ere. Alkate ohiaren erranetan, azken bizpahiru hilabeteetan astakeriak argitaratu dira eta Cornelia Lekuona Fundazioko lurren inguruan egin di-



ARGAZKIAK: AITOR A.

Arkupe elkartearen paleta-goma txapelketaren finala Joan den urtean bezala, Donostiako Estitxu Pierola eta Irurritako Edurne Argainek irabazi dute aurten ere Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta-goma txapelketa. Azaroaren 3ko finalean 30-18 irabazi zieten Lizarrako Cristina eta Inesi. Hirugarren posturako lehian, Etxarri-Aranazko Ianira eta Maialenek ere aisa irabazi zieten Lesakako Aurora Sanz eta Edurne irundarra ordezkatu zuen Igantziko Bea Lizardiri, 30-21.

tuen tramiteak azaldu nahi izan zituen.

Lehendik udal planoan eta komunikabideetan egin zuen bezala, salerosketa kontratua sinatzea bere hanka sartzea izan zela onartu zuen Mitxelena, baina inondik ere ez duela dirurik kobratu eta informazioa nahasi dela aipatu zuen.

Ikastolak eta Patronatuak hartutako bide judiziala, Onin Udal Taldeko zinegotzi batek bul-

tzatu duen bide okerra dela uste du Mitxelena. Udaletxeko bertze gai potologoetan izaten ari diren kudeaketa arazok estaltzeko erabiltzen ari omen dira Fundazioko lurren salmentaren afera. Cornelia Lekuona Fundazioko lurren salmenta denentzako onuragarria dela uste du EAJ-PNVk, «bait ikastolarendako, berak hala eskatu zuelako, bai Fundazioarendako, gutti erabiltzen ziren lurrei

aterabidea ematen ziolako eta baita Udalarentzako ere, babes ofizialeko etxebizitzak, haurtzaindegia eta musika eskola egiteko lurrek behar zituelako».

Egoera moldatzeko, bide judiziala baino aterabide errazagoa badela aipatu zuen Laura Iantzi zinegotziak, Patronatuak oraindik kobratu gabe dauden txekak konstruktoreari itzultzea: «Zergatik ez du Patronatuak hori egin nahi?».

FLASH

Santa Zezilia kontzertuak

Musikarien Eguna dela-eta, hainbertze kontzertu egingen dira egunotan. Azaroaren 21ean, asteazkena, udal musika eskolak eskainiko du pleno-aretoan, 17:00etan. Hilaren 23an, Musika Bandaren txanda izanen da, 20:00etan aparkalekuko karpan eta 24ko arratsan, Abesbatza, trikitilariak, txistulariak eta akordeolariak karrizak karriz ibiliko dira.

Bertso-afaria Arranon larunbatean

Egun berean, azaroaren 17an, bertso-afaria antolatu du Bortzirietako bertso eskolak Arranon. Ez nolanhiko bertsolariekin, gainera, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio ariko baitira kantari, Josu Goikoe txea gai-jartzailearen erranetara. Afarirako txartelak 20 euroan salgai daude Arranon berean edo 618 963011 telefonora deituz.

Tailerrak, txapelketa eta haurren txokoa Gaztik-en eskutik

Lesakako Gaztik elkarteak antolatuta azaroaren 24an, txalaparta eta yembe tailerrak eta pin-txazo txapelketa egingen dira, 17:00etan aparkalekuko karpan. Igandean, hilaren 25ean, haurren txokoa antolatu dute leku berean, 15:30etik 19:00etara.



ETXALAR

Uso aunitz eta ipar haizea: usazaleak kontent aurtengo sasoiarekin

106 dozenatik goiti harrapatu dituzte dagoeneko sareetan

Joseba eta Nerea

Aitzineko urtetako marka aisa gainditu dute dagoeneko. Iaz 500 usora ez ziren ailegatu denboraldi osoan eta, aurten, joan den asterako-sasoi erdia-1.200 usotik goiti kontatzen ari ziren. Ipar haizearen meritua dela erran digute, aurten usoek bide naturala hartu baitute, hego haizerik ez izatean. Bi egun hagitz onak izan zituzten: Usategie-tako lgandean 30 dozena harrapatu zituzten, eta azaroaren 5ean 12 dozena. Martxa honetan segitzen badute, egun batzuk luzatuko dute aurtengo uso-denboraldia, azaroa akaberarte.

Idazkari berria

27 urteren ondotik, Jose Luis Legarrak bere lanpostua utziko du heldu den abenduan. Ordezkoa topatzeko probak egiten ari dira egun hauetan. Ortziralean euskara-proba egi-

nen dute hautagaiek, eta hurrengo astean froga tekniko eta praktikoa. Puntu gehien lortzen dituen izanen da Etxalarako idazkari berria. Hautagaien artean bi etxalartar eta Euskal Herri osoko hainbat daude.

Kanposantu ondoko zabortegia

Azken aldiko gorabeherak ikusita, zabor gehiago botatzea debekatu du Udalak. Gehienbat adarrak, belarrak eta obra tikieta-ko zaborrak biltzen ziren zabortegian, baina hemendik aitzinera ezin izanen da deus bota. Garbitu, egokitu eta itxura hobea emanen dio Udalak, honen ordez zabortegi berria bilatzen duen bitartean.

Bataio bakarra aurten

Urritzokietako Amaier Elizalde Telletxea bataiatu zuten joan den urriaren 28an.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Frontoiko lanak aitzinera doaz

Itxura honekin dago herriko frontoia joan den urri akaberatik. Aspaldiko beharrei erantzunez, teilaberritzen ari dira aste hauetan. Urtea akabatu aitzinetik burutuko dira obra lanak.



ARGAZKIA: ANABEL ARBURUA

Bertso-saio arrakastatsua

Bigarren urtez segidan, sekulako giroa izan zen Kultur Egunen barrenean antolatutako bertso-saioan. Joan den urteko saioaren errebantxa moduan, Lesaka eta Zarauzko bertsolarien arteko pikea izan zen. Joseba Olagarai aritu zen gai-jartzaile lanetan, eta sei bertsolarik erantzun behar izan zieten bere ariketa bereziei: Lesakakoen taldean Erika Lagoma, Ioar Tainta eta Alazne Untxako aritu ziren, eta Zarauzkoenean Arkaitz, Aitor Urbieita eta Oier Aizpurua. Objektuei bertsoak, Etxalarako hitzei bertsoak, trikitixaren erritmorra bertsoak, denetik izan zen. Jendeak irriz segitu zuen saioa eta aunitz inporta ez bazuen ere, zarauztarrak izan ziren irabazle.

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasaia, 66 behea - BERA

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

WATER-BIKE

Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

ARANTZA

Kultur Egunak ezinhobeak izan dira

Baserritarren Eguneko 12. edizioan jende aunitz bildu zen

Nerea ALTZURI

Euskara Batzordeak antolatu eta Udalak lagunduriko kultur egunak pasatu dira aurtengoz. Urriaren hondarretik azaroaren 3a bitarte kultur ekimen aunitz izan dira. Badira dagoeneko dozena bat urte, azaroaren 1ean Baserritarren Eguna egiten dela, eta egia erran, urtez-urte nabariagoa da egun honen indarra. Herri tikiak izateko, herritar andanak, modu batean edo bertzean parte hartzen du. Baina egun hau herritar ez diren ingurukoen bisitaleku ere bilakatu da. Aurten tiki gelditua zen frontoi sarre eta barrena goiz goizetik. Ekaitza elkarteko ordezkariak mahaiak eta ostataua paratuak zituzten eta herritar aunitzek beuren produktuak erakutsiz parte hartu zuen: barazkiak, animaliak, gozokiak, zerrikiak, taloak, fruituak, kamisetak... eta aipatzekoa da eskulan taldeak nola partikularrek eraman ziz-

tuzten eskulan saila. Ederki hornitua zegoen goizetik herriko xokoa. Sarreran batik bat aziendak eta frontoi barruan gainerako elementuak, salgai nola erakusgai. Etxean ekoiztiriko produktu aunitz ikus zitezkeen. Nafarroako Kutzako bulegoan, berriz, argazki zaharren erakusketa zegoen.

11 GAZTA LEHIAKETAN

Frontoiaren bertze aldean mahai bat; inguruan herritarrak eta mahai gainean 11 gazta ikusgarri eta dastagarriak... A ze itxura! Hirugarren urtez, gazta lehiaketa egin zen eta epaimahaiari, Ainara Amoros, Teodoro Pikabea, Jose Luis Iparagirre, Jon Koldo Arburua eta Andoni Zulaika zeuden. Pantaleon Errandonea, berriz, laguntzaile lanetan aritu zen. Epaiaren lehenengo fasean, hiru gazta aukeratu zituzten; eta ondotik eman zuten epaia. Aurtengo lehe-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Hauke parte hartzaileak: Martixenea, Inddurtzain, Senberro, Lau Lore, Bortzak Bat Kooperatiba, Aientsako Osildekoborda, Plumorda, Ximonia, Amaia Apezetxea, Urdinborda, Igetkorda, Sagargoxo, Felix Apezetxea, Eskulan taldea, Ximonenborda, Toki-Ona Institutua, losu Goia, Motxinea, Tuaneborda, Morrenborda, Gazte Asanblada, Txapatibaita, Ilargi okindegia, Luis Madariaga, Mariñenborda, Serorinborda, Etxeberria, Martinkorda eta Txankorda.

nengo saria Mendialdeko Antonik jaso zuen 143 punturekin eta bere gaztarengatik 100 euro jaso zituen; bigarrena Albizko Inesek 137 punturekin eta hirugarrena Tuaneborda Marixolek 133 punturekin. Zorionak hirurei!

Gainerako gaztak Eguzkialdea eta Bortaldea auzoetako Ximonenborda baserrikoak, Senberrokoa, Aientsa eta Eguzkialdea auzoetako Gaxteleneborda, Laraburukobordakoa, Serorinborda eta Martixeneborda ziren. Ga-

azta bakoitzarengatik 10 euro jaso zituzten.

Sari banaketaren ondoren, gazta irabazlearen erdia enkantera atena zen eta 20 euro ordaindu zituzten. Gainerako gazta erdiak Ekaitza elkarteko ostatauan saldu ziren 10 euroan.

PRODUKTUEN SASKIA

GAXTELENEKOBORDARA
Baina ez zen guziaz honekin bukatu: Bertako produktuekin osatutako saskia Gaxteleneborda Mirenek eraman zuen eta Gazte Asanbladak bere postuan jarritako ilar gorri

potean zenbat ilar ale zeuden herritarrek egiten zuten apostuan, Iñaki Larretxea hurbildu zen gehien. Erantzun zuzena 1.075 izan arren, Iñakik 1.110 erran baitzuen.

Horrelaxe bukatu zen goiza bada. Arratsaldean, 18 bikotek mus txapelketan parte hartu zuten elkartean. Biharamunean, berriz, 60 lagun bildu ziren bertso afarian Ekaitza elkartean eta sekulako giroa egon zen. Larunbatean, Laket eta Deus taldeek dantzaldia eskaini zuten goizaldera arte eta gustura ibili zen jendea.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 639 735 - 467 406 781

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGIA
ALBERGIA • JATETXEA

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak
Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

BAR Botxo OSTATUA

SUNBILLA

Ulibeltzak Elkarteak mahai-ingurua antolatu du abenduaren 15erako

Patxi Astibia, Arria II.a, J. L. Irutxinberri eta Antonio Altuna hizlariekin

Jaione OTXANDORENA

Ulibeltzak Elkarteak antolatuta hainbat ekitaldi izanen dira heldu den abenduaren 15ean. Eguneko ekitaldirik garrantzitsuena, ordea, mahai-ingurua izanen da. 19:00etan hasita aizkoraren inguruan izanen da solasaldia. Mahai-ingurua Patxi Astibia eta Arria II.a hizlariekin hasiko da. Ondotik, prestakuntzaren inguruan Jose Leon Irutxinberri arituko da. Apostuei buruz, berriz, Antonio Altuna mintzatu da.

Mahai-inguruaren ondotik, 21:00etan afora eginen da. Horretarako txartelak salgai daude herriko ostatu eta dendetan. Afalondoan, 22:30ean bideo emanaldia eskainiko da La-



ARTXIBOA

Urte hasieran herriko 15 gaztek Saldiaстик Belatera mendi irteera egin zuten. Oraingoan, Berara joanen dira.

tasaren denboretako irudiek.

Berara ateraldia

Bertze behin ere, herriko gaztetxoek badute non gozatu, datorren azaroaren 18an, Berara joanen baitira mendi

ateradi bat egitera, Nafarroako beste herrietako zenbait gaztetxorekin.

Mendi ibilaldia Ibar-din aldera eginen dute, eta eguerdirako itzuliko dira Berako frontoira. Bertan bazkaldu ondoren jokuak izanen di-

tuzte, baita igoerari buruzko dvd bat ikusteko aukera ere. Ilunabarrean, Sunbillara itzuliko dira. Momentuz, 10 eta 17 urte bitarteko 21 lagunek eman dute izena ateraldi honetan parte hartzeko.

BERTIZARANA

Legez kanpoko uso-postua jartzeagatik ehiztari bat salatu dute

ttipi-ttapa

Duela bi aste, Foruzaingoko Ingurumena Zaintzeko Saileko poliziek Irungo ehiztari bat salatu zuten, Sunbillako dermioaren barranean Bertizko Jaureriko Natur parkean zegoen legez kanpoko postu batetik ehizean aritzeagatik. Zehazki, Sunbilla-Bidasoa-Berroarango kotoaren Parretazar usategiaren mugan. Ehiztari hau herriko koto bateko bazkide denez, koto hori ere salatu dute foruzainek, bere uso-postuen segidan legez kanpoko bertze bat jartzeagatik. Ingurutik ez ikusteko diseinatua omen zegoen postua.


Lizun
GAZTANDEGIA
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

egoi bardot obregozo arkitektoa
 679649789 elizondo - braulio inarte 33,1º D - 31700
 948210963 iruñea - paulino caballero 15,1º A - 31002

ttipi
ttapa
 ☎ (0034) 948 635458

larkilanak
 ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
 ETXEDIZTEA PROIEKTOK
 URBANIZAZIO PROIEKTOK
 ETXO BERRITZEAK
 NABEAK
 KONSULTAK
 INFOGRAFIA 3D
 SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TEL 948 581 931


Lizardi
 Telekomunikazioak

 TDT Instalazioak
 TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)
 Instalazio indibidualak eta kolektiboak
 Portero automatikoak
 Etxeko hari musikala
 Tel. 670 415 720
 joeanlizardi@hotmail.com

ARKUPEAK

Arkupeak Elkarateak hainbat bazkide omenduko ditu hilaren 24an Donezteben

9:30etik aitzinera autobusak izanen dira Doneztebera joateko

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarateak azaroaren 24an Donezteben eginen duen bazkaria aprobetxatuko du zenbait herrietako ordezkari eta zuzendaritza batzordeko kideri omenaldia eskaintzeko. Zehazki, zuzendaritza batzordeko Joaquin Goikoetxea Azkona, 87 urteko beratarra; Jose Urrutia Grajirena, 87 urteko Saldiasko delegatua; Anuntxi Agesta 92

urteko etxalartarra, batzordeko kide ohia, delegatu ohia eta aldizkariaren animatzailea eta Jose Paul Corrales etxalartarra, hau ere idazkaria, delegatua eta zuzendaritza batzordekoa izandakoa, omenduko dituzte. Gisa berean, hil ondoko omenaldia eskainiko zaie Ezkurrako Pantxito eta Rosario Gorostiaga Escala anai-arrebei. Pantxito zuzendaritza batzordeko kidea izan zen, delega-



ARTXIBOA

Joan den urteko abenduan Felipe Ganboari egindako omenaldian 1.100 lagun inguru elkartu ziren.

tua eta bilkuren animatzaile handia eta bere arreba, Ezkurrako delegatua izan zen.

Azaroaren 24ko egitarauari dagokionez, autobusak 9:30ean abiatuko dira Goizueta eta Zugarramurditik; 10:00etan Irun, Leitza eta Ezku-

rratik; Bera, Etxalar, Elizondo eta Almandoztik 10:15ean eta Zubieta, Sunbilla, Oronoz eta inguruetatik 10:45ean.

11:30ean Meza emanen da Doneztebe-ko parrokiaren aurretik, aurretik dako bazkideen omenez. Ondotik bertso-

riak arituko dira eta egidan hitzaldien txanda etorriko da. Gero, omenaldia eginen da kiroldegian eta leku berean, bazkaria. Bazkalondolan, 16:30etik 19:00etara dantzaldia izanen da eta 19:15ean autobusak etxera abiatuko dira.



ostargi optika

Bea Artola Ferran | 948 630 753
Optiko Optometrista | Bidasoa, 8
31780 BERA

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentilen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 3 utetik aurrerako haurren errebisioa

BEHETIK

aulki jasotzaileak



☎ 943 372 870

TTIPI-TTAPA TELEBISTA 32. kanalean ikusten da orain Donezteben eta inguruko herrietan

Antena partikularra dutenek telebista bersintonizatu beharko dute eta, pazientzia pixka batekin, telebista aparatua bilatuko ditu etxeko antenatik hartzen diren frekuentziak.

Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, nahitaezkoa izanen da anplifikadore berria jartzea. Horretarako, antena instalatzaileari deitu beharko zaio.

Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 948 63 54 58 telefonora.

EUSKAL TONBOLO



euskarari

afariak



KYA

auto-giro
hegaldiak



DVD-ak



TDT-ak



asteburuak
Pirinioetan
8 lagunentzako



kotxeak



42" plasmak



txartelak salgai
Nafarroa
osoko tabernetan

GOIZUETA

Dena prest hilaren 24ko Feria Egunerako

Herri bazkarirako txartelak Amaiarenean eta Urrutinean salgai daude

Esteban AROTZENA

Mingain urdinaren gaitza dela eta Iruñetik etor litezkeen neurrien zain, dena prest dago hilaren 24an ospatuko den feria berreskuratuauren laugarren edizioarako.

Eguneko gauzarik garrantzitsuena azoka bera izanen bada ere, horren aitzakian antolatzen den herri bazkaria izanen da aurten ere festari distira ederra emanen diona. Aurreko urteetan 400 lagundik gotti biltzen dira pilota plazan, eta aurten ere kopuru horren bueltan

ibiliko dira bazkaltarrak. Txartelak Amaiarenean eta Urrutinean daude salgai. Goizeko 10etan irekiko da feria dagoeneko ohikoa bihurtu den ekitaldiarekin.

Fernando Goia Frantzian

Fernando Goia zinegotzia Frantziako Folkalquier herrian izan berria da Cederna-Garalurrek antolatutako bidaietan. Herri eta hirieta-ko alde zaharren birgaitze eta kontserbazioari buruz hitz egin zen gaian eredu den aipatutako herri horretan.



Bertso idatzien festa azaroaren 23an

Andres Mitxelena-ren *Ezkontza Galduren Bertsoak* sortak 100. urtea bete du aurten eta horixe hartu du aitzakiatzat Kultur Taldeak ostirala, 23an, bertso idatzien festa haundi bat ospatzeko.

Mila urte pasata... izenburuko jaialdi hau

Txirritaren bertsoek boro bilduko dute. Dagoeneko emanaldi batzuk eginak dira Irazu eta Unai Agirre, Lujanbio haundiaren bertsoak kantatuz eta antzeztuz, Goikoetxea akordeolari ezaguna lagun hartuta. Goizuetan eskainiko dutena diferentea

izanen omen da Txirritak gure herriarekin izan zuen harreman bereziarengatik. Andres Mitxelena-renak, berriz, herriko eskolako eta musika eskolako ikasle eta irakasleek kantatuko dituzte. 20:00etan hasiko da emanaldia Ganbaran.

ARESO

Urriaren 10az geroztik Ione Lazkoz da Herriko Etxeko idazkari berria

Sei hilabetetan ariko da lanean, aurrekoaren ordezkapena egiten

Juana Mari SAIZAR

Urriaren 10ean Udaletxeko idazkariaren ordezkapena egiten hasi zen Ione Lazkoz, eta badirudi hurrengo sei hilabetetako lanaldia berak beteko duela. Izan ere, aurreko idazkaria bajaran egongo da bitartean.

Umeak mendira

Guraso Elkarteak urtero udazkeneko ekital-

dien barnean, gaztainak bildu eta handik aste batera elkarte batean gaztainak jatea antolatzen du haur eta gurasoekin. Aurten ere halaxe izan da. Joan den asteazken arratsaldean mendira joan ziren herriko umeak klaserik ez daukatela aprobeztatuz.

Herriko pilotariak

Mikel Olazabal pilotari



ARGAZKIA: JUANA MARI

Astean hiru egunetan, Leitzako IKA euskaltegitik irakasle bat etortzen da Aresoko hiru herritarrerri klasea ematera: Ramoni, Morelari eta Mari Pazi. Klaseak udaletxeko gela batean ematen dituzte.

gazteak udan egin zuen profesionaletarako pausoa eta geroztik hainbat partida jokatu ditu, horietatik asko emaitza onekin. Hainbat partidatan, telebistaz joko-

tzen ere ikusi dugu. Bigarren Mailako lau t'erdiko Txapelketan parte hartu du eta bigarren partidaren txapelketatik kanpo gelditu da. Anartz Olanok, berriz, Erri-

xan, Titin III.a Torneoan finala jokatu du, eta lau t'erdiko txapelketan parte hartzen ari da Lizarran. Xehetasunak aurrerago emanen dizkizuegu.

LEITZA

Ikasle eta talde ugari Leitzako euskaltegiko ikasturte berrian

75 ikasle inguru eta sei irakasle
daude euskaltegian

Joseba URKIOLA

Euskaldun aktiboak sortzea helburu, orain aste gutxi ekin zion Leitzaldeko IKA euskaltegiak ikasturte berriari. Denboraldi honetan 75 bat ikasle izango dituzte euskaltegiak. Hauetatik 20 iaz euskara ikasten jardun zutenak, eta beste guztiak berriak. Gehienak atzeritik ingurura bizitzera etorritako etorkinak edota zonaldeko bikotea daukaten kanpotarrak dira. Urrats desberdinetako zortzi taldetan banatuta daude.

Aipatu, euskaltegiak egoitza Leitzako udaltxean duen arren; Leitzaldea, Goizueta, Araitz-Betelu eta Imotz-Basaburuako herritarrak euskalduntzeaz arduratzen dela. Hala, Leitzan talde bat, Areson beste bat, Goizuetan bi talde, Aizarotzen bi talde eta Betelun beste bi talde eratzea lortu dute.

Aurtengo ikasturtean, aurretiaz lanean ziharduten Kontxi Zozia arduraduna, Kepa Mateorena eta Onintza Bengoetxearekin batera, Maxux Sukuntza, Antoni Urkiola eta Jasone

Sagastibeltza leitzarrak irakasle gisa ariko dira.

Informatika ikastaroak

Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalur elkarteak elkarlanean, informatika ikastaroak antolatu dituzte. Helburua herritarrak teknologia berriekin hartuemanetan jarri eta beronek eskaini ditzakeen misterioak argitzea da.

Lehenengo ikasturtean antzeko ikastaroarekin egin moduan, antolatzaileek aurtengoa ere bi zatitan banatu dute. Honela, ikastaro bat 3. adineko herritarrei bideratua egonen da eta bestea emakumeei.

Ikastaroak azaroaren 12an hasi eta 23a bitarte, Leitzako Amazabal Institutuan emanen dira. 3. adinekoen ordutegia 16:30etik 18:30era izango da; emakumezkoena, berriaz, 18:30etik 20:30era.

Zine emanaldiak

Hilabete batzuetako geldialdiaren ostean, Leitzako zinea berriro buru-belarri lanean da. Azaroaren 1ean emititu



ARGAZKIAK: ASKETA ABESBATZA

Oilartxoaren aro berria

On Juan Bautistaren agurraren ondotik, Leitzako Asketa abesbatzak bere bidea egiten dihardu. On J.J. zenaren ondoren, Berako apaiza arduratu baita Leitzako taldeak gidatzeaz. Asketakoek Irazokiren hutsartea ondo hornitzen jakin dute eta Oilartxoaren ordezkariak doinuaz eta letrez zizpriztindutako ilusiozko aro berri batean daude. Polonia eta Paris bezalako lekuak bisitatu dituen hegaztiaren bi arduradun nagusiak Ainara Roda eta Eguzkiñe Zabaleta izanen dira. Lehena Gazte abesbatzaren gidari izango da. Eguzkiñe, berriz, txikietaz arduratuko da. Dena den, Eguzkiñe bere betebeharrak ez du bakarrik jardungo. Ikasketak kanpoan burutzen dituela aintzat hartuta, Gazte abesbatzako ordezkariak arduratuko baitira astez egin beharreko entseguak egiteaz. Aro berriko lehen hitzordua abenduaren 3an Garesen izanen dute. Gabon Egunean Leitzako karraketan eta hilaren 29an Soraluzen ere, Oilartxo ikuskatzeko parada egonen da. Momentuz, prestaketa lanean dihardute beren betiko habitxoan.

zen lehen filma eta ikasturte honetan ere, ostiralean (22:30ean) eta igandetan (19:30ean) eskainiko dira.

Lehen emanaldi sortan eskaini dituzten filmak *Eutsi* eta *El violín* izan dira. Hurrengoetan, Felix Viscarreten *Bajo*

las estrellas eta *Kutsidazu bidea Ixabel*, Joxean Sagastizabalen eleberrian oinarritutako filma izango dira.

luis cestau baraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

BAZTAN

Baztandarren Biltzarra Elkarteak kultur egitarau zabala antolatu du hurrengo hilabeteetarako

Logotipoa aukeratzeko lehiaketa ere zabaldu du; epea hilaren 30ean akituko da

ttipi-ttapa

Baztandarren Biltzarra Elkarteak ekitaldi andana antolatu ditu azaroatik abendura bitartean. Hitzaldiak, kontzertuak, bertso afariak, haur zein helduentzako tailerrak eta lehiaketak. Denetarik ekitaldiak daude egitarauan. Horien berri eguna hurbildu ahala emanen dizuegu. Hasteko, ortziral honetan, hilak 16, *Palestina, 60 urte erresistentzian. Euskal brigadista batzuen lekukotasuna* hitzaldia eskainiko dute Arizkunenean Nekane Madariaga eta Gorka Quevedok. Hurrengo ortzira-

lean, hilak 23, ordu eta leku berrean, *Baztandarrek Ameriketanbide* emanaldia eta solasaldia eskainiko dute Ttipi-ttapa telebistakoek. Amerikako Estatu Batuetara egindako bidaiaren elkarrizketatutako hainbat baztandarren lekukotzak hurbilagoetik ikusi eta aditzeko aukera izanen da. Azkenik, aipatu, azaroaren 30ean, ortzirala, Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko duela Arizkunenean, 20:00etan.

LOGOTIPO LEHIAKETA

Logotipoa aukeratzeko lehiaketa ere zabaldu du elkarteak, Baz-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Juanjo Atxari omenaldia

Elizondoko ferietako pilota partida hasi baino lehen, Juanjo Atxari omenaldi xumea eskaini zioten Baztango Udalak eta Baztango pilotazaleek. Egindako lana eskertzeko, Rakel Goñi Udaleko Ongizate zinegotziak oroi-garria eman zion pilotari eta pilotazale baztandarren txalo artean. Juanjo Atxak 30 urte daramatza Baztango pilota eskolan lanean, eta honen fruituak lehenengo mailara ere iritsi dira. Baztandar aunitz bere eskuetatik pasatu dira, lan handia eta isilia eginez. Zorionak!

tango egileei luzatua. Lanak aurkezteko epea azaroaren 23an bukatuko da, eta interesatuek *Baztandarren Biltzarra Elkarte*, 22 P.K. 31700 Elizondo (*Nafarroa*) helbidera bidali edo Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean utzi behariko dituzte. Irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Islamaren inguruko jardunaldiak

Bidelagun Elkarteak Islamari buruzko jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 21etik 23ra. Arizkunenea kultur etxean izanen dira eta ekimenaren helburua kultura horren inguruko ezagutza zabaltzea izanen da.

Ikastolako pottokaren zozketa

Baztan Ikastolako pottokaren zozketan saritutako zenbakia jakinarazi du: 2.749. Elizondoko ferien egunean saldu zen eta zenbaki hori duenak 948 452106ra deitu behar du. Pottoka Urruxka baserriatik ekarria da.



SOULE

hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN



Eskisaro
jateleku

Jaime Urutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

Isa
Centro de Estético

Depilazioa • Manikura • Pedikura • Makillajea
Aurpegi eta gorputz tratamendua...

Giltxaurdi, 10 • ELIZONDO • 620 038 892

Iñaki Alzuet
margoak

Fotografiak • Basmotzak
Dekorazioak (estuko, beladurak...)
Plaketa • Latakia eta barmotzak taldean

Kametea Etxea - Lembitur Auzoa - 31711 URGAZURI
Tfnoa: 659 862 417

Nafarroan
ATV kontzesionario
berria

Autoquad XL (TUTERA)

CONCESIONARIO OFICIAL
SUZUKI

ZERBITZU OFIZIALA BIK BAT TAILERRA • ELIZONDO • Tfnoa: 948550896
www.autoquadxl.com



BAZTAN

Uholdeak ekiditeko egiten ari diren kanal irekiaren kontra Arraiozen

Herritarrek ubidea lur azpian egotea nahi dute

Maite OTEIZA

Arraioztarrak ez dau-
de ados uholdeei aitzin
egiteko herrian egiten
ari diren obrek. Maia-
tzeko uholdeek eragin-
dako kalteen ondotik,
bai Hidrografia Konfe-
derazioak eta bai Trag-
sa enpresa publikoak—
azken honi Udalak ha-
la eskatuta—uholdeak
murrizteko onena ibai-
ri kanal ireki bat egitea
litzatekeela ebatzi zu-
ten. Udalak kanal irekia
egiteko proiektua onar-
tu zuen eta obrak egi-
ten ere hasi ziren. Her-
rian, ordea, hasieratik
proiektuaren kontra
agertu dira eta kanala
lur azpian egitea nahi
dute. Hala, azaroaren
5ean obrak geldiarazi
ere egin zituzten. Uda-
laren «ardurarik eza»
ere kritikatu dute herri-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Arraioztarren iritziz, kanal irekiak herria bitan zatituko du.

tarrek, eta Nafarroako
Gobernura jotzea ere ez
omen dute baztertu.
Arraioztarrek plaza es-
talia ikusi nahi dute, «le-
hen bezala». Horrez
gain, kanal irekia eginez
gero, ibaiaren ondoan

dagoen etxe bat sarre-
rarik gabe geldituko li-
tzatekeela argudiatu du-
te. Gaineratu dutenez,
egiten ari diren pareta
estetikoki «itsusia» da,
herria bi zatitan bana-
tuko duelako eta antzi-

nako garbilkua estali-
ko duelako. Gisa bere-
an, «*paretak guttienez
40 zentimetroko zaba-
lera eduki beharko lu-
ke, eta zenbait zatitan
ez du 15 zentimetroko
zabalera ere ez*».



PERTSONAIA

Hasier LARRETXEA

‘Azken Bala’ bere olerki liburua Artista Gazteen Topaketan saritua

Hasier Larretxea arraioztarrak 2007ko Artista Gazteen Topaketan hirugarren saria lortu du *Azken Bala* olerkia liburuarekin. Hau ez da bere lehen lana, 2005ean *Bazaudete* olerki liburua argitaratu baitzuen. Xorroxinen esatari ibilia, Baztango Udaleko Gizarte langile gero, gaur egun, FELGT Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Estatu-ko Federazioko teknikaria da Madrilen. Saria Baluarteen jasoko du hilaren 26an. Zorionak!

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Barriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenetik
larunbatara:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Okindegia Jatetxea
Uxoa
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,
goxo goxoa!
Ordoki Industriaidea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 · 948 581 853

SENPERE

Mihi urdinaren eritasuna dela eta, azienden mugitzeak arautu dituzte

Susmo txarrak izanez gero, marexalei deitzeko ohartarazi dute

Franck DOLOSOR

Gipuzkoako zenbait etxaldetan agertu den mihi urdinaren eritasunak ondorioak izan ditu gure eskualdean ere. Hemen ez da oraino kasurik agertu baina aferra hurbiletik zaintzea deliberatu dute laborantzako arduradunek. Gure kantonamenduan azienden mugitzeak arautu dituzte. Intsektuen kontrako produktuak eman beharko zaizkie eta odol ateratzeak egin beharko zaizkie aziendak garbiak direla frogatzeko. Herriko laborari eta hazle guzietan informazio gutun bat jasoko dute egun hauetan, eta hala, norbaitek susmo bat izanen balu marexalei deitzea eskatu dute agintariek. Momentuz, Lapurdin ez du iduri txerto kanpainarik eginen denik.

Kezka sortu bada ere, kontsumitzaileen tzat ez dela batere arrisurik oroitarazi dute laborantza ganbaratik. Dudak daude bildots sal-



ARGAZKIA: FRANCK

Ardiak Otsantz aldean. Larrun mendiaren bertze aldean agertu da mihi urdinaren gaitza.

tzeen eta Heletako Santa Katalinaren ferien inguruan. Hazilaren 24 eta 25ean ospatuko da.

Zabortege berria

Birziklatutako gaiekin eraiki dute duela guti estreinatu den Zalua-ga Bi zikin biltegia. Horrela, birziklatzearen garrantziaz ohartarazi nahi dute Bizi Garbia sindikatuko ordezkariak. Lanak duela urte bat hasi

ziren eta orain behar diren baliabide guztiak daude: 311 metro koadroko bulegoa, 12.000 metro koadroko garajea eta 519 metro koadroko aldagelak hori diren 50 langileentzat. Zalua-ga Bik kasik 3 miliun euroko gastua sortu du eta 11 herritako zikinak biltzen ditu, horien artean daude Senpere, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi.

L'Auberge Basque jatetxea saritua

L'Auberge Basque jatetxea *Gault et Millau* Frantziako gida ospetsu berrian agertuko da. Urteko sarituen artean dago Donibaneko bide zaharrean kokatzen den ostatu hau. Cédric Béchade sukaldari gazteak zuzentzen du 1670an altxatu zen etxe hau.

FLASH

J. C. Irazoki kirol eta kultur arduraduna

Jean Claude Irazoki amoztarra sartu da herriko kontseiluan eta hermendik aitzinera kirolaz eta kulturaz bera arduratuko da. Michel Lahet Juzan auzapezaren lehen ordezkariak demisionatu du berriki eta beraz, gehiengoaren zereñdan agertzen zen hurrengo hautagaiak sartu behar zuen kontseiluan. Martxoko bozak egin arte hautetsia izanen da Irazoki.

Argindarra eta telefono kableak

Argindarra eta telefono kableak luperatuko dituzte laster karrika nagusia inguruan eta Hiruak Bat etxe gunean. Herriko Etxeak baimeak eta dirulaguntzak eman ditu lan horiek egiteko.

Eskolako lanetarako laguntza bila

Gazteei eskoletako lanak egiten laguntzeko jende bila dabil Herriko Etxea. Laguntza hori 17:00etatik 18:30erako tartean emanen litzateke. Xehetasun gehiago jakin nahi duenak telefono honetara deitu beharko du: 06 10 45 59 05.

BAR-OSTATVA MON
ZATOZTE TRAGOA EDATERA
ESTANCO - TERRECO BENDX
ANZAN-BORDA
VRDIX - VRDIZVBI

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaliaga Industrialdia
LESAXA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

HERRIKO ETXEO
LOINTZIGIZ
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0539542519
Maïxan eta Véronique
SARA

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia
Zugarramurdi bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Ikusmin handia piztu du ahozko tradizioaren artxiboaren aurkezpenak

Urriaren 27an aurkeztu zen Sorginen Museoan eta 60 bat lagun bildu ziren



Margari eta Koro

Urriaren 27an aurkeztu zen Sorginen Museoan Urdazubi eta Zugarramurdin egin den *Ahozko tradizioaren ikusentzunezko artxiboa*. Ikusmin handia sortu zuen aurkezpenak: Museoko auditorioa txikia gelditu zen, eta aunitzek zutik egon behar izan zuten. Bere egunean grabatutako zati batzuk pantaila handi batean ikusi ziren (kontrabando istorioak, lehengo lanak eta bestak, lehengo eskola...) eta hala, jendea DVD hori erosteko gogoarekin gelditu zen. Grabaketak Urdazubiko Udalak eta Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak ordaindu dituzte eta orain euren esku dago herritarren artean nola banatu erabakitzea. Horren berri izatean Ttipi-Ttapan aldikarian jakinaraziko dizuegu.

Urdazubiko motokros proba bertan behera

Igande honetan, azaroak 18, Urdazubin egitekoa zen motokros proba bertan behera gelditu dela adierazi dute antolatzaileek. Nafarroako Txapelketako *Enduro Erresistentzia* motokros proba egitekoa zen, baina azkenean zenbait arazo izan direlako, ez da eginen. Hala, antolatzaileek dagoeneko paratuak dauden karteletan kasurik ez egiteko eskatu dute, eta bide batez, zaleei barkamena eskatu diete.

Rural Kutxan Gordailu Berezia

Badaude aurrezkirako produktu ugari errentagarritasun altua eskaintzen dutenak, baina segurtasunik gabekoak. Bertze batzuk, segurtasuna dute, baina duten errentagarritasuna ez da sobera interesgarria. Rural Kutxan posible da errentagarritasun altua eta segurtasun osoa lortzea.

INBERTSIOAREN %40	INBERTSIOAREN %30	INBERTSIOAREN %30
7%	7%	20%
6 hilabeteko epean T.A.E. %7,12	6 hilabeteko epean T.A.E. %7	36 hilabeteko epean (*) T.A.E. %6,26

nire aukera

(*) %20ko errentagarritasun metatua mugaeguneeen 5 akzioen kotizazioa pare edo handiagoa bada hasierako errenterria datan zuena baino. Nahiz eta akzioen bat edo batzuk hasierako balorearen azpitik kotizatu, bada errentagarritasuna lortzerik, kasu honetan gehien jautsi den akzioaren baliogabe metatuaren %20 gutxiago eskuratuko bala. Kapitalaren %100a bermatua. Akzioak: Telefónica, BBVA, Iberdrola, Repsol eta Inditex.

2007ko azaroaren 28a bitarte balioa duen eskaintza, Nafarroako Rural Kutxan duten aurrezki gailuaren maila handitzen duten pertsonentzat.

www.ruralnrx.com
Tel: 942 310 300

SARA

Serroren eskolako gurasoek antolatuta, Eguberrietako merkatua azaroaren 24an

Hernandorena bertso sariketako laugarren kanporaketa trinketean jokatu da

Xan HARRIAGUE

Azken urteetako usaiari segida emanez, Serroren eskolako gurasoek eguberrietako merkatua antolatu dute. Larunbatean zortzi iraganen da plazan. 9:00etatik aitzinera, 18:00ak arte, aita eta amek egindako eskulanak salduko dituzte, bitxiak, apaingarriak eta berinan egindako margoak, bertzeak bertze. Pere Noel delakoa ere hor egonen da, eta nahi izanez gero hurrek potreta baten ateratzeko aukera izanen dute, Arantxa Leizagoinen argazkilaria egun guzian plazan izanen baita.

Sasoi txarra usategietan

Urte eskasa izan da herriko usategietan. Sa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gurasoek euren eskulanak plazaratuko dituzte. Argazkian duelako hiru urteko merkatua ageri da.

retan uso gutti hartu dituzte. Diotenez, haizea alde izan dute, baina badiardi pasabideak urte batetik bertzerera aldatzen direla. Hala ere, ez dute amore emateko asmorik. Pirinioetan uso

guttien hartzen dituen usategia saritzen duen gapelu ttikia bertze urte batez herrian egonen bada ere, urte anitzez segitzeko gogoia dute, arbasoek emandako ondarea ez baita uzten.

Bertso saioa

Hernandorena bertso txapelketaren finalurrekin bat herriko trinketean jokatu da azaroaren 23an, ortziralarekin. 19:30etik aitzinera, Xumai Murua,

Patxi Iriart, Beñat Iguaran, Aimar Karrika, Kar-mele Mitxelena eta Julio Soto elkarren artean lehiatuko dira, bi aste beranduago Aiherran jokatuko den finalerako txartela eskuratzeko. Bertsolarien Lagunak Elkarteak antolatzen duen bertso txapelketa hau gazteei zuzendua da, haiei plaza batzuk eskaini eta ezagutarazteko aukera emateko.

Kalte ordainak galdetzeko

Maiatzeko uholdeetan kaltetuak izan ziren laborariek kalte ordainak galdetzeko paperak Herriko Etxean hartu behar dituzte. Bete eta gero, azaroaren 20 arte badute DDAF delakora helarazteko Herriko Etxearen bitartez.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak
 mantelak
 edredoi nordikoak
 kuxinak
 ohe estalkiak
 maindireak
 toailak
 edredoi-azal nordikoak

edredoi-azal nordikoak eta edredoietan espezilistak

EZKONTZAK

Daniel Edo Rubio eta **Ana M^a Llorente Delmas**, Bartzelona eta Madrilgoa, urriaren 20an Elizondon.

Jon Eskudero Irigoien eta **Angela Barrenetxe Olaizola**, Gartzain eta Iruñekoa, urriaren 27an Gartzainen.

Fco Jabier Urrutia Juanikotena eta **Beatriz Alzuarte Arregi**, Azpilkueta eta Iruñekoa, urriaren 20an Amaiurren.

Andres Elizaintzi Vicente eta **Miren Larre Cordoba**, Irurita eta Elizondokoa, abuztuaren 25ean Iruritan.

Jose Jabier Mugika Azkarraga eta **Beatriz Ruiz de Larrinaga Idoate**, Iruña eta Elizondokoa, azaroaren 3an Elizondon.

Luis Iriarte Lasaga eta **Ixone Gorrotxategi Etxeberria**, Irungoak, urriaren 27an Lesakan.

Mikel Altxu Agesta eta **Ainhoa Mitxelena Etxeberria**, Ituren eta Igantzikoa, azaroaren 3an Igantzin.

Jesus M^a Casanova Ulibarrena eta **M^a Cristina Otamendi Aranibar**, Iruña eta Berakoa, urriaren 20an Beran.

Joakin M^a Danborenea Zubiela eta **M^a de la Soledad Freitas Magalhaes**, Bilbo eta Donostiakoa, urriaren 20an Beran.

Eduardo Perez Elizalde eta **Monika Portu Berasategi**, Berakoak, urriaren 20an Beran.

Jesus Luis Gartzia Fernandez eta **M^a Ramona Azpirotz Saralegi**, Burlata eta Hiriberrikoa, urriaren 20an Leitzan.



SORTZEAK

Ugaitz Erbiti Baleztena, Donamariakoa, urriaren 26an.

Izaro Pagazartundua Arotzena, Gartzaingoa, urriaren 19an.

Izai Zapata Goienetxe, Amaiurkoa, urriaren 21ean.

Iohnna Catherina Irusta Abadin, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 26an.

Iruñe Iturralde Goñi, Elbetekoa, urriaren 28an.

Aroa Kortari Markez, Legasakoa, azaroaren 2an.

George Bertiz Geirggieva, Etxalarkoa, urriaren 16an.

Eukeni Etxenike Gerra, Igantzikoa, urriaren 31n.

Nerea Etxeberria Arotzena, Goizuetakoa, urriaren 24an.

Luka Altzuguren Goia, Berakoa, urriaren 19an.

Oier Sarobe Roman, Berakoa, urriaren 20an.

Garazi Uitz Matxiarena, Berakoa, urriaren 29an.

Uxue Ibarra Marizkurrena, Sunbillakoa, urriaren 28an.

Maialen Mendiburu Argote, Zubietakoa, urriaren 21ean.

Aratz Elizalde Dominguez, Zubietakoa, urriaren 26an.



HERIOTZAK

Tomasa Iantzi Iturria, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 29an, 96 urte.

Manuel Barrio Reclusa, Igantzikoa, azaroaren 5ean, 84 urte.

Josefa Antonia Eskudero Zugarramurdi, Goizuetakoa, urriaren 25ean, 77 urte.

Jose Manuel Zugarramurdi Elizondo, Sunbillakoa, urriaren 23an, 67 urte.

Pilar Retezi Zubieta, Almandozkoa, urriaren 25ean, 83 urte.

Patxiku Santesteban Iriarte, Berroetakoa, urriaren 28an, 78 urte.

Itsaso Mena Barberena, Elizondokoa, urriaren 28an, 37 urte.

Jose Angel Alaña Aizpuru, Elizondokoa, urriaren 29an, 65 urte.

Felicitas Urrutia Ariztia, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 30ean, 92 urte.

Joseba Bahamonde Serano, Berakoa, azaroaren 3an, 55 urte.

Jose Manuel Petrikorena Baleztena, Beintza-Labaiengoak, azaroaren 5ean, 96 urte.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrekak S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrekak S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran hil zen 2007ko urriaren 16an, 82 urte zituela

Gure bihotzak penaz beteak
hemen dituzu utzi,
gure artetik joan zarela
ezin dugula sinetsi,
horrelakorik ez genuela
ezta zuk ere merezi.
Agurrik ez dizugu erranen
gero arte bai amatxi maitea.



Javier MARIEZKURRENA Doneztebeko kamioi pilotoa

ARGAZKIA: PATXI APEZETXEA

- **Javier Mariezkurrena** Doneztebeko pilotoak bere denboraldirik onena egin du. Kamioien abiadura hirugarren izan da Espainiako txapelketan eta hamazazpigarren Europakoan.

- **Doneztebeko Ederki** Tailerreko eskuderia izan du laguntzaile Europa osoan egindako zazpi probetan eta Lesakako Transportes Bidasoa enpresaren babesa ere jaso du aurten.

- **Egin duen denboraldia** ikusirik, MAN markak motor berria eskaini dio heldu den denboraldirako eta Javier itxaropentsu ageri da.

«Etxean egindako kamioiarekin aurre egin diegu aurten eskuderia ofizialei»

Aitor AROTZENA

Javier Mariezkurrena Doneztebeko pilotoak bere denboraldirik onena egin du, Espainia eta Europako kamioi abiadura txapelketetan. Doneztebarra Ederki Tailerrak eskuderiarekin aritzen da kategoria nagusian eta mila zaldiko potentzia gaintzen duen MAN kamioia gidatzen du. Nolabait errateko, kamioien Formula-1 izanen litzateke: «F1 eta motoziklismoaren aldean telebistan gutti agertzen garela egia da, baina zirkuitoetan 30-40.000 lagun biltzen dira eta Alemanian, baina 60.000 ere» dio Doneztebekoak. Mariezkurrenak hirugarren postua eskuratu du Espainiako txapelketan eta hamazazpigarrena Europakoan. Emaizta honetarako Ederki Tailerra, Europako eskuderia pribatu onenen artean jarri du eta prentsa espezializatuaren eta bertze taldeen loreak jaso ditu. Mariezkurrenaren ustez, «arras mekaniko onak ditugu eta dena taldearen lanaren emaitza da. Muxutruk hor-

«Formula-1 edo motoziklismo karrerekin konparatuz gutti agertzen gara telebistan, baina zirkuitoetan beti 40.000 ikusle izaten dira guttienez».

txe ari dira lanean eta etxean egindako kamioi batekin eskuderia ofizialei eta gidari profesionalei aurre egin diegu». Pilotoarekin batera, hamabi lagun ari dira lanean, guziak Malerreka eta Bortzirietakoak.

PILOTATIK PILOTORA

Urriko lehen asteburuan akitu zen denboraldia Mariezkurrena gidari duen taldearentzat. Madrigo Jarama zirkuituan bi proba jokatu ziren eta bietan podiumera igo zen Mariezkurrena. Albaceten ere podiumera igo zela kontuan hartuz, denboraldi ederra osatu du Doneztebeko gidariak.

Kamioia hartu baino lehen, hamar

aldiz laxoa txapelketa irabazia da Mariezkurrena Doneztebeko taldearekin, baina «burniak betidanik gustatu» zaizkiola eta «pilotarako zaharregia» zela kontuan hartuz, kamioiarekin probatu zuen 2003ko denboraldi erdian: «Frantziako Nogaron hasi nintzen, kamioi zahar batekin». Geroztik, aunitz profesionalizatu omen da kamioi lasterketan mundua.

Denboraldi honetan, Lesakako Transportes Bidasoa enpresaren babesa izan du Mariezkurrenak eta honen ekarpena handia izan da. Hala ere, badirudi onena etortzeko dagoela. Izan ere, Doneztebekoak egin duen denboraldi bikaina ikusita, MAN markak motor berri bat eskaini dio Ederki tailerrari, gaur egungo Europako txapelkunak, Antonio Albacetek erabiltzen duen berbera.

Motor berriarekin hurrengo denboraldia ere arrakastatsua izanen dela espero du Mariezkurrenak: «Europoan, hamar lehenbizikoetan sartzea polita litzateke».

FERIAK



DONEZTEBE

azaroak 16

LESAKA

azaroak 21 eta 22



Tfnoa: 948 451 596 • 667 424 635
 Faxa: 948 456 168
 Leku Eder, 6 • SUNBILLA
 info@sasoi.es



Amezia, 7
 Tfnoa: 948 450 271
 DONEZTEBE
 enfi parr forkid



BIXEN ostatua
 Eskualde eta etateko sotoak
 948 450 383 • DONEZTEBE

KULTURKARI

Zuk aukeratutako argazki eta testuarekin

- Egutegiak
- Boletuak
- Loteria...



T. 948 625 458 • kulturrari@igti.net



**ALBAITARITZA
 ZENTRU
 TEKNIKOA**

Helbide berria

Don Sanjurjo, 15 • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 451 501



JUAN J. PIKABEA

Arropa konfekzioak
 Senargaietzako trajeak
 Gizonendako jostungintza
 Egindako trajetan aukera zabala
 Galtzak 70 neurria bitarte
 Atorrak 54 neurria bitarte
 Jertseak ere taila handiak

Amezia z/g.
DONEZTEBE
 948 451 670



*Aurtengo
 feriak umore
 ederrean
 pasatu*

Merkatarien Karrika 28
 ☎ 948 451826
DONEZTEBE



Eskaintza hori 2007/06/01etik 2007/06/30ra bitartean bakarrik erabilgarria da. Erabiltzeko baldintzak ikusgai. Antena eta dinamikak 100 W-koak dira eta 120 m. kable TB berriztatze (100 W-koak) berriztatze (100 W-koak).
 Eskaintza hori 2007/06/01etik 2007/06/30ra bitartean bakarrik erabilgarria da. Erabiltzeko baldintzak ikusgai. Antena eta dinamikak 100 W-koak dira eta 120 m. kable TB berriztatze (100 W-koak) berriztatze (100 W-koak).
 Eskaintza hori 2007/06/01etik 2007/06/30ra bitartean bakarrik erabilgarria da. Erabiltzeko baldintzak ikusgai. Antena eta dinamikak 100 W-koak dira eta 120 m. kable TB berriztatze (100 W-koak) berriztatze (100 W-koak).
 Eskaintza hori 2007/06/01etik 2007/06/30ra bitartean bakarrik erabilgarria da. Erabiltzeko baldintzak ikusgai. Antena eta dinamikak 100 W-koak dira eta 120 m. kable TB berriztatze (100 W-koak) berriztatze (100 W-koak).

FUTBOLA GUSTOKO DUT

ETA **CANAL+** EN DENA DAUKAT

CANAL+ hilabetean

19,95
 € tik hasita

Orain, eguneko partida bat opari bi hilabetez

Harpidetza egiteko etorri

BORTZIRIAK

Bidasoa, 45 • BERA

edo 948 630 377ra deltu

DIGITAL+



Traktoreak eta biltzeko makinak erosteko dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak makineria berritzeko 200.000 euroko laguntza onartu du

Heldu den urteari begira baserrietako makinak erosteko dirulaguntza berria onartu du Nafarroako Gobernuak. Denetara 200.000 euro emanen dira traktoreak eta biltzeko makinak erosteko.

Zaharkitua gelditu direnak eta gabeziak dituzten makinak alde batera utzi eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukera berriak ahalik eta gehien aprobetxatzea nahi da, eta hala, makineria berria probetxu hobegokoa izatea.

Gisa honetara, lan baldintzak hobetu eta segurtasuna areagotuko direla iragarri du Gobernuak, eta horrekin batera, ingurumenean eragiten duten inpaktua tikiagoa izanen omen da. Aipatzekoa da, 1980a baino lehenagoko traktoreek ez dutela segurtasun sistema homologaturik.

Traktoreekin lan-istripu ugari gertatzen direlako onartu du neurria Gobernuak. Kontua larria da. Nekazaritzaren sektorean traktoreen iraulketa da heriotza gehien eragiten dituen arrazoia. Pertsona ugari hiltzen da urtean manera batera edo bertze traktoreak tartean direla. Espainiar estatuan, erraterako, urtean 60 lagun inguru hiltzen dira traktoreak iraulita, Nafarroari, berriz, kopuru horren %1a dagokio.

Nafarroan 15.909 traktore inguru daude, eta horietatik bakarrik 1.900ek dituzte bostz urte baino guttiago. Biltzeko makinak, berriz, 1.401 daude Nafarroan eta horietatik 320 bostz urte baino guttiagokoak dira.

Horren harira, Nafarroako Gobernuak bertzelako datu bat ere jakinarazi du: ibilgailuen motoren indarra haundiagotzen doala, alegia: traktore zaharrek 80 zaldi inguruko indarra dute; aldiz, berriek 110 zaldikoa gutti gorabehera. Biltzeko makinetan berriz, batzaz bertzekoa 160 izatetik 180 izatera pasatu da.



AROZENA OSTATUA
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa: 948450443

Mailposta Buzoneos
leitzak biltsu, 9 DONEZTEBE • 948 592 313
• Inprimategia
• publizitatea
• diseinu grafikoa

MAYLIN OSTATUA
• Bokadiloak
• Pintxoak
• Plater konbinatuak
